

BANAKETA ETA KOMUNIKAIZIO KANALAK, ESKEMA

Nola egingo dugu gure zerbitzua bezeroengana iristeko?

SARARGIk kanal integraleko estrategia bat erabiliko du, bere balio-proposamena merkatu-segmentuetara, bereziki udalerriak bezalako erakunde publikoetara, iritsi dadin bermatzeko.

Kanal motak

- **Komunikazio-kanalak:**

- Webgune profesionala: Eskaintzen diren zerbitzuak, sortutako egokitzapenak/baliabideak eta irisgarritasunaren inguruko iragarkiak/berriak jakinarazteko.
- Sare sozialak: LinkedIn/ Instagram/ Tiktok bezalako plataformen erabilera, erakunde publikoekin eta sektoreko profesionalekin elkarreragiteko. Kontaktatzeko ere, Whatsapp aplikazioan enpresaren txata sortuko dugu SARARGI-ren telefonera lotuta.
- Ekitaldietan parte-hartzea: Sentsibilizazio-jardunaldietan eta irisgarritasunaren inguruko foroetan presentzia izatea.
- E-mail bidezko harremanak: Informazio pertsonalizatua bidaltzea interesa izan ahal duen edonori; hala nola, udal arduradunak, udal teknikariak edota ekimen pribatu ezberdinak (hezkuntzakoak, kultur-arlokoak, osasungintzakoak...).
- Enpresako telefonoa: SARARGIk telefono zenbaki mugikorra izango du balizko bezeroekin modu arinean kontaktatu ahal izateko.
- Bisita pertsonalizatuak: SARARGI-k bezero potentzialeei proiektua eta eskeintzen dituen zerbitzuak modu zuzenean aurkezteko aukera proposatuko die. Zuzeneko bisita hauek kontratuak ixteko aukera paragabeak dira, baina baita ere, enpresa zein erakunde publikoekin konfiantzan oinarritutako epe luzeko harremanak eratzeko balio izango dute.

- **Banaketa eta salmenta kanalak:** SARARGI-k zerbitzuak salduko ditu bere bezeroei modu zuzenean. Aldebikoen bitartez, zerbitzu hauen nolakotasuna eta salmentaren baldintzak adostuko ditugu. Ondoren, zerbitzuaren ezugarrien arabera, komunikazio kanal propioen bitartez helaraziko diegu, edota SARARGI-k kudeatuko ditu beharrezkoak diren egokitzapenak burutzeko lanak bezeroaren espazio fisikoan. Hori dela eta, SARARGI-k ez du izango banaketa edota salmenta kanalik, modu zuzenean salduko baititu bere zerbitzuak.